

XagunArtea

2011ko urriaren 17a

Xagun aldizkaria

70. alea

Kultur astea urriaren 22tik 29ra egingo da

Udazken garai honetan, aurten ere kultur astea prestatu du Oa kultur elkarteak. Urriaren 22tik 29ra izango da aurtengo ekitaldia, eta honako egitaraua izango du:

Urriaren 22an, larunbata, goizeko 11etan haur jolasak eta marrazki saioa izango dira. Eguediko 13etan triki-poteoa eta 14etan kantu-bazkaria. Aurten babarrun-jana egingo da eta bertan parte hartzeko txartela Mandio dendan erosi behar da urriaren 20a baino lehen. Kantuen ostean, arratsaldeko 6etan, II. tortila lehiaketa egingo da. Parte hartzeko izena aurrez Mandion eman behar da.

Urriaren 23an, jubilatuen eguna izango da. Eguediko 13etan Meza Nagusia izango da eta ondoren bazkaria Ostatur, Patxi Etxeberria eta Joxe Agirre bertsolariak alaituta.



Urriaren 24tik 28ra hitzaldiak izango dira iluntzeko 7etan kultur etxean. Astelehenean Mikel Zalbidetik Zeraingo euskara izango du hizpide; asteartean Joseba Barandiaran ekonomialariak krisiaz hitz egingo du; asteazkenean Maria Ixabel Elorzak inguruko bideez jardungo du; ostegunean, Juan Martin Elexpuruk Iruña Veleiako auzia izango du mintzagai; eta ostiralean, bideo emanaldia egingo da.

Urriaren 29an, larunbata, kultur asteko azken egunean mendi ibilaldia izango da goizean. 9etan plazatik irten eta Barbari aldera izango da irteera. 11etan Urubin hamaiketako izango da. Eta arratsaldean, 7etan, Mixel Etxekopar musikari zuberotarrak emanaldia eskainiko du elizan, hainbat musika-tresna ezberdin jota.

459.870 euro Madrildik Zeraina



Urriaren 3an, Madrilgo Sustapen Ministerioak Aizpeako meategien berreskuratze proiekturako 459.870 euroko diru-laguntza akordioa sinatu zuen Zeraingo Udalarekin. Laguntza aurrez onartuta bazegoen ere, hitzarmena orain sinatu da.

Galdeketa zaborren kudeaketaz

Urriaren 14an eta 16an, galdeketa egin zuen Udalak herritarren artean, zaborren kudeaketaren gaiari Sasieta mankomunitatean jarraitu beharreko ildoak erabakitzeko. Gipuzkoan dauken bi postura nagusien artean galde-tuzien Udalak herritarrei, jendeak erabakitako emaitza Sasieta mantenduko zuela hitza emanda. Zentsoko 227 zeraingarren artean 107k eman zuten botoa (%47). Emaitza honakoa: PNVren ildoak jarraitzea, 68 boto; Bilduren ildoak jarraitzea: 35 boto. Zurian 3 boto eta baliogabea 1. Ondorioz, Udalak galdeketa gehiengo lortutako ildoak babestuko du Sasieta.

Turismo kalitatean ziurtagiriak



Urriaren 3an, Zeraingo hainbat zerbitzuek *Kalitatea etengabe hobetzeko konpromisoaren aitortpenaren diploma* jaso zuten Getariako Balentziaga museoan egindako ekitaldian. Zeraindik, Oatza Sagardotegia, Mandioa jate-

txea, Oiharte nekazaturismoa, Oiharte Sagardotegia, Zeraingo Herri Museoa, Zeraingo aterpetxea, Zeraingo Turismo Bulegoa, Aizpeako Meategiak eta Aldabe zerbitzu turistikoek jaso zuten diploma.

Basazabalgo gazta saritua Ordizian



Basazabalgo Jabier Muñoak hirugarren saria irabazi zuen Ordiziako lehiaketa entzutetsuan. Hilabeteko atzerapenez, baina zorionak Jabier!

Herri-mugen ibilaldia egin ostean, azaroan gaztina eta talo jana



Urriaren 12 egin dugu Zerain herriak ondoko herrieekin dituen herri mugen ibilaldiaren 3. zatia. Oraingoan, Mutiloa, Legazpi eta Zegamarekin dituenak ikusi ditugu; eta hurrengo ibilaldian, Zegama eta Segurarekin dituenak ikusiz amaituko dugu Zerainen ingurua.

Laino artean ibili ginen arren, Zeraingo inguruko mendietan (Harripileta, Oamendi...) goiz pasa

egin ondoren bazkari ederra egin genuen soziedadean.

Urriaren egin dugun ekintza izan da hau eta azaroaren 5ean talo eta gaztina jana izango dugu. Arratsaldeko 3etan elkartuko gara plazan gaztinak biltzeko eta ondoren, iluntzean, elizatarian gaztinak erre eta taloak egingo ditugu herritarrentzat. Beraz animatu eta azaldu!

Basarte Guraso Elkarteak

Tentsio altuko linea herritik pasatzeko proiektua aurkeztu da

Iberdrolak tentsio altuko kableen linea herritik pasatzeko asmoa aurkeztu du. Nafarroatik Ezkio Itsasora AHTrako energia eramateko kableak dira Zeraindik pasa nahi dituztenak. Oraindik ez dago argi nondik pasa asmo dituzten kable handi horiek.

Errementariko proiektuaren aukeraketaren erabakia atzeratuta

Urriaren 1eko herri-bileran Errementariko bost proiektu finalistak aurkeztu ostean, herritarrek horiek ikusteko eta botoa emanez aukeratzeko parada izan genuen urriaren 3tik 8ra bitartean. Bozketaren emaitzak jakiteko Etorlurren epaimahaiko abokatua kontaktetan presente egotea beharrezkoa da. Eta gaixo dagoela-eta, oraindik zenbaketa egin gabe dago eta guztiok aukeraketaren emaitzaren zain gaude.

Murtxikea

Nere edadetik gora, zeraindar guztiek dakite *murtxikea* zer den. Guztiek dakite, eta askok erabiltzen dute". Hala esan dit Elenak, gaurko hitza aurkezterakoan. Gazteen artean, aldiz, gauzak ez dira horrela: bertan jaio eta bertan bizi den gizaseme bati galdetu berria dio, eta argi atera ditu Elenak kontuak: galtzen ari da hitz hori ere.


Zer da *murtxikea*? Zer da *murtxikea* edo, hiztegiara jotzekotan, *murtxika*? Alferrik saiatu gara biok, Elena lehenik eta ni neu gero, OEhk horretaz zer dioen begiratzen. Justu-justu horrelako forma duen hitzik ez dator hiztegian. Bai, ordea, antzekorik. Batetik, hor dago *mutxika* edo *muxika* izen-sarrerara. Hor bai: bete-betean ematen du hor OEhk, <r> hotsik gabe ordea, Zeraingo *murtxikaren* adiera: "Troncho de pera, de manzana". "Los residuos que quedan de la manzana cuya miga y corteza se han consumido". Gipuzkoako hitza omen da *mutxika* hori. Konkretukiago, Goierrikoa. Hor bakarrik dokumentatu da, izan ere, OEhn. Beste adierarik ere ba omen du *mutxika* edo *muxika* horrek. Bizkai aldean, esate baterako, (comer) a pedacitos" omen da *mu(t)xika*. Nolanahi ere, "ikus *mutxikin*" esaten du hiztegiak. Hots, hitzaren sarrerara nagusia *mutxikin* dela, ez *mutxika*. Hara jo dugu beraz, argitasun eske.

Hona zer atera dugun: *mutxikin* (Bizkaian eta Gipuzkoan, Bergaran eta Azpeitian), *muxikin* (Bizkaian), *motzukin* (Azpeitialdean), *umetxikin* (Gipuzkoako dot-esparruan). "Troncho, residuo de fruta o de cualquier cosa; lo que se arroja después de comer lo utilizable". "Núcleo de la manzana". Honela esana du gipuzkoar batek: "*Berak atal ederrak, neri umetxikiña*". Juan Martin Elexpuruk, berriz, honela jaso du Bergaran: "*Ez bota mutxikiñak bentanatik*". Bizkaierazko euskaldun baten hitzak dira, berriz, beste hauek: "*Bete eban bere zakutu edo zorroa arto mutxikiñez*". Txomin Agirrek idatzia da, azkenik, beste hau: "*Neskatx batzuek sagarrai*

ozkaka ari dituk eta azkenengo mutxikin ondarra lurrera yalki diate". Bizkaian, eta hemen Debarroan, *motxikin* edo *motxokin* ere esan izan zaio. Beste hitz askori gertatzen zaion gauza berea ikusten da *mutxikin* honekin ere: adiera metaforikoa hartzen du maiz. Horrela, berriro ere Elexpuruk Bergaran jasotakora hurbilduz, "colilla de cigarro" adiera hartzen du inoiz hitz horrek. Horra bere adibidea: "*Orrek mutxikiñak pe erre ingo littuzke*". Bada lehendik antzekorik idatzitakorik. Batek honela zioen: "*Ezpanetan zigarro-mutxikin bat ebala*", eta beste batek honela: "*Ziarro-mutxikiña bentanatik kalera bota-ta*". Oro har, erdarazko "residuo" esateko aukera ona ematen du *mutxikin* horrek, plano formal-jasoan jardun nahi denean. Hona Eibarko Toribio Etxebarriaren adibide bat, hau ere OEhtik jaso: "*Arek aurkittu zittuen irabazi zoruak; guk umetxikiñak*".

Erabilera jaso-formal hori posiblea da berez, eta arras eroso ere bai, baldintzatxo bat betetzen bada aurretik: *mutxikin* edo *mutxika* hitzaren jatorrizko adiera, bere adiera arrunta, zein den jakin behar da. Hortxo dago gakoa: adiera arrunta galtzen dugun neurrian, eta itxuraz bide horretan barrena goaz Zerainen bertan, alferrik da metaforazko adiera jasoak eratzen saiatzea. Azkenean puxka moduko akronimoetara, soberakin moduko sasi-pseudonimoetara edo (er)residuo moduko maileguetara jotzen badu gazte-jendeak, ez da estetikas edo bestelako moda-kontuaz. *Mutxikina* zer den ez dakienak ezin du hartaz baliatu. Are gutxiago egin diezaioke hitzari inolako zabalkuntza semantikorik eta, metafora bidez, nekez eskura dezake erabilera jaso-formalik. Aspaldi esan zuen batek: "Dakienak daki, ez dakienak baleki".

Tristeia iruditzen zaigu gure ohiko hitz-althorraren gainbeherako ibilera hori, euskaltzale garen neurrian. Tristurak ez du ordea horrelako aldalkuntzarik eragotziko. Ez estetika tradiziozaleagoak, ez jatortasunezko moda-kontuak eta ez euskal-



tzaletasunak dute indarrrik, uholde horri aurre egiteko. Egutero ikusten dugun kontua da hori: euskaraz pentsatuz euskaldunekin euskaraz diharduen gazte-jendeak ere nekez eusten die aitona-amonon hitzei bere osoan, azal eta mami. Nagusiki erdaraz pentsatuz euskaraz baino sarriago erdaraz diharduenak are zailago du, bistan da, belaunez belaun iritsi den hitz-althorrari hainbatean eustea. Nahiko lan dugu halakok, oro har, bizi garen gizarte moldean euskarazko mintzajardunari eustearekin. Euskarazko jardunaren lagungarri da, ez eragozle, *mutxikinari mutxikin* esaten jakitea eta, hala dagokionean, gatz-piper biziz esatea. Hor dago esatari onaren, hitzun erakargarriaren doaia. Gutxi batzuen berezitasuna ezin eskatu, ordea, arau zabal izatea. Jarraituko dute gero ere, euskarak bizirik dirauen artean, *mutxikin* hitzak bai adiera arruntean eta bai, gutxiagoren ezpain-lumetan, jaso-formalean. Zeraindarrek, horretan ere bere ukitua dutenez, nahiago izango dute agian *murtxikeaz* hitz egin. Jan sagarra, kupidarik gabe, eta eutsi *murtxikari* zahar eta gazte.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

IRAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
				1	2	3	4
Euria (l/m)	GUZTIRA: 39 l.			2,75	1	16	0,75
C° altuena	ALTUENA: 35 °			32	34	19	20
C° baxuena	BAXUENA: 8°			14	14	17	15
	5	6	7	8	9	10	11
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0
C° altuena	23	31	30	31	35	37	27
C° baxuena	12	9	10	43	15	19	14
	12	13	14	15	16	17	18
Euria (l/m)	0,25	0,50	1,5	2	0	3	7
C° altuena	31	31	22	35	23	19	19
C° baxuena	11	13	16	15	15	16	12
	19	20	21	22	23	24	25
Euria (l/m)	2,75	0	0	0	0	1,5	0
C° altuena	22	27	30	21	31	23	31
C° baxuena	8	11	9	16	14	16	12
	26	27	28	29	30		
Euria (l/m)	0	0	0	0	0		
C° altuena	33	33	31	29	29		
C° baxuena	11	10	13	11	15		

Udazken sarrera ezin hobea izan dugu

Iraila ere lehor eta bero joan zaigu, ikusi besterik ez dago 30°-tik gora hamasei egunetan pasa garela; hala ere gauak freskoak izan dira eta gaitzerdi. Eguna hilaren hasieratik bukaerara asko moztu du eta horri esker eguraldia ederra izan dugu. Uda osoan baino eguzkituagoa izan dugu iraila. Fruta denak aurreratuta etorri dira, adibide bezala Zumadi ondoko mizpira eder hau.



Irrien lagun klubeko aterpetxea Zerainen



Urritik aurrera *Irrien Lagunak Klubeko* aterpetxea Zerainen izango da. Ikastetxei zuzenduta bi edo hiru eguneko egonaldiak antolatuko dira asteen zehar eta asteburuetan guraso edo elkarte desberdinentzat egongo da irekia.

Hainbat gai landuko dira egonaldi hauetan: natura, industrializazioa, gaztagintza, erlezaintza, Erdi Aroa, etab. Bisita hauetan zehar *Irrien Laguneko* pertsonaiak azalduko dira:

Largabista, Mari Kalanbre, Martin Bertso, etab.

Lehen taldea urriaren 13tik 14ra izan dugu herrian. Bi egunez, Donostiako La Salle - San Luis ikastetxeak izan ditugu. Animalien gaia lantzeko aukera izan dute *Irrien Laguneko* gure adiskideekin: Porrotx, Marikalanbre eta Largabistarekin. Besteak beste, erleak eta ardiak hobeto ezagutzeko aukera izan dute Donostiako haurrek.

Makrobiotika ikastaroa

Sukaldaritza makrobiotikoaren ikastaroa hasi zen joan den urriaren 15ean Zeraingo Liztormendi elkartearen. Goierriko bizitza eta nekazaritza ekologikoaren IV. hamabostaldia baitan antolatuta, lau larunbatez jarraian 25 lagun ikastaro horretan parte hartzen ari dira.



Mandio taberna itxita

Oporrak direla eta, Mandio taberna itxita egongo da urriaren 20tik azaroaren 10era bitartean.

Osakidetzaren oharra

Urriaren 21ean ez da mediku-zerbitzurik izango herrian. Urriaren 18an eta 20an, berriz, goizeko 8etatik 9:30etara egongo da kontsulta.